



## EGITASMOAN EDUKIEN LIZENTZIARI BURUZ ERABILIKO DEN POLITIKA EDO ARAUEI BURUZKO TESTUA

Blog-ean guk sortuko ditugun edukien CC BY-SA lizentzia pean jarriko ditugu. Horretarako, blog-ean idazten duten pertsona guztiak honen jakitun izango dira.

### **Lizentzia eta eskubideen gaineko politika**

[www.bizipoza.eus-eko](http://www.bizipoza.eus-eko) blog-eko testuak lizentzia honekin egongo dira babestuak: [Creative Commons Aitortu-Partekatu](#), cc-by-sa. Iritzigileek, erantzunetan mezua lagatzen dutenek, argazkiak igotzen dituztenek... edozer bidaltzen dutela ere, lizentzia hau esleitzen diotela onartu behar dute.

### **Creative Commons Aitortu-Partekatu**

CC-by-sa laburdurak Creative Commons Aitortu-Partekatu lizentzia adierazten du. Definizio gehientsuenen arabera, eduki librea edo/eta copyleft terminoak aplikatu dakizkieke hemengo CC-by-sa testuei.

Funtsean honek zera esan nahi du: edonork erabil ditzake hemen agertzen diren testuak.

### **Eskubidea duzu:**

- Hemengo testuak norberak nahi duen tokian berrargitaratzeko.
- Testuen kopiak egiteko.
- Testuotan oinarritutako lan eratorriak egiteko, erabilpen komertzialak barne (liburu batean bildumaren bat egiteko, adibidez).
- Testuak, argazkiak, bideoak... erabiltzeko [euskarazko Wikipedian](#) artikulua dokumentatzeko.

Baina eskubide horiekin batera, **betebeharrak** daude(

- Egiletza aitortu behar duzu. Artikuluaren sinatzaileari zor zaio egiletza hori eta baita bizipoza.eus-i ere.
- Baldintza berean banatu behar duzu lan eratorria edo egiten duzun kopia edo dena delakoa.

Egiletza aitortu eta lizentziaren baldintzekin zuzen jokatzeko modu zuzen bat izan daiteke erabiltzaile izena aipatzea, jatorrizko webgunea – bizipoza.eus - ,lizentziaren aipu eta lotura eskaintzea.